

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

56/2025 Mozioa, ekainaren 18koa, tokiko landa merkataritzari bultzada emateari dagokionez

Arabako Batzar Nagusiek, 2025eko ekainaren 18an egindako osoko bilkuran, honako mozio hau onetsi zuten:

56/2025 Mozioa, ekainaren 18koa, tokiko landa merkataritzari bultzada emateari dagokionez.

1. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote Arabako landa-eremuko tokiko merkataritza sustatzeko mahaia osa dezala 5.000 biztanletik beherako udalerrietan, tokiko erakundeekin, elkarteekin eta merkataritza-sektoreko eragileekin lankidetzan.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala ADN (Arabako Denden Nortasuna) bereizgarriaren bitartez saltokiak bereziten, eta sor dezala despopulazioaren aurkako borrokan laguntzen duten saltokiak bilduko dituen zigilu espezifiko bat.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu diote 2026ko lehen seihilekoan plan bat aurkez dezala, saltoki historikoak eta artisautzakoak turismo-ibilbideetan txertatzeko eta haiekin lankidetzan aritzeko turismo-prestakuntzan, haien historia eta kokatuta dauden lekuarena kontatzeko.

4. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote proposa dezala, sustapen-mahaiaren bidez, landa-merkataritza hezkuntza-curriculumean sartzea, ikastetxeek tokiko landa-merkataritzaren kontsumoa balioetsi eta bultzatzea. Hala, merkataritza horren abantailak balioetsiko dira: arreta pertsonalizatua, ingurunean aberastasuna sortzea, hurbileko produktuen balioa, zerbitzuen mantentzea eta landa-ekonomiaren dinamizazioa.

5. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote sari bat sor dezala urtero, sektoreko elkarteekin lankidetzan, Arabako landa-merkataritzaren kalitatea sustatzeko; horretarako, baloratuko dira, besteak beste, lokalaren diseinua, produktu berri orijinalak edota Arabako tokiko produktua sustatzeko jardunbide eta ideia egokiak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 18a

Lehendakaria

IRMA BASTERRA UGARRIZA